



183. zenbakia

· OTSAILA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Ohianzabal eskolako haurrek irratiko tresnak lapurtu dizkigute Esan Erran itzuli dela jakin dutenean

LEGE GORDAILUA


NA 721/93

Inprimategira martxoaren 7an bidalia



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Olerkia





Berueten

“Kanpotik etortzen denarendako aspergarria izan daiteke, baina gu ez gara aspertzen Berueten”

Berueteko banatzaileak dira Aitor Arangoa Mariaskurrena, elixaldekoa; June Mikeo Sanchez, Errandoxeneakoa; eta Idoia Goñi Andueza, Diauneakoa. June eta Idoia txikitatik hasi ziren Pulunpe banatzen, 11 eta 10 urte baitituzte, eta dagoeneko duela 4 bat hasi ziren Aitorrekin batera. Idoia asteburuetan joaten da Bereuetera, horregatik ez da gurekin egon, baina June eta Aitorrek mezu bat bidali diote: “Gurekin urte asko Pulunpe banatzea espero dugu, horrela euskara ikasiko du”. Bestalde, June, eskaera bat egin digu, motxilan pisu gehiegi eramaten duenez, karro bat nahi du, baita “Pulunperoak” idatzita duen kamiseta ‘ofiziala’.

• ASPALDITIK BANATZEN AL DUZUE PULUNPE?

June: duela 3 edo 4 urte hasiko ginen. Aitor banatzen ari zen eta esan zidan, “June, lagunduko didazu?” eta horrela hasi nintzen.

Aitor: Idoia ere hemen dagoenean etortzen da. Eta beste norbait baldin bada inguruan ere bai. Leire, adibidez. Baina, horrela ziur, gu hirurok. 60 aleko paketea iristen denean, motxila hartu eta etxetik joaten gara banatzen. Ordu betean egiten dugu eta gero pintxo potera, meriendatzera. Etxeen izenekin batzuetan nahasten gara, ezta, June? (barreak).

• ZENBAT BIZTANLE ZARETE HEMEN BERUETEN?

June: lan bat egin genuen eta 114 ginela esan zuten.

Aitor: asteburuan jende gehiago etortzen da, baino bizi... lehen 200 inguru ginen, baina dezente jaitsi zen, bai.

• ETA EUSKARAZ HITZ EGITEN DUZUE GEHIENEK?

Aitor: Bai, gazteek gutxi, baina adineko jendeak, denek. Idoia dugu, euskaraz ez dakiena, baina pixka bat defendatzen da. Gurekin ari da ikasten.

• ZERGATIK HASI ZINETEN PULUNPE BANATZEN?

Lehen emakume batzuk aritzen ziren, baina aspertu ziren eta herriko ostatuan uzten hasi behar zuten. Asmoa bakoitza bere ale bila joatea zen. Ikusi genuen jende asko ez zela joanen eta asko han geratuko zela irakurri gabe. Orduan gu hasi ginen.

• NOLAKOA ESANGO ZENUKETE DELA BERUETE?

Aitor: Lasaia, kanpotik etortzen denarendako aspergarria izan daiteke igual, baina gu ez gara aspertzen batera.

• AITOR, BASABURUKO UDALAN ZINEGOTZIA ZARA, AURTEN AZKENEKO URTEA, LEGEALDI BERRIAN UTZIKO DUZU?

Gorabehera batzuk izan ditugu, baina orokorrean, esperientzi positiboa izan da. Neurri batzuk aurrera eramanez ahal izan ditugu, adibidez Ametzako hitzarmena eta Pulunperako udal guztien konpromisoa.

Ez, ez dut inongo asmorik segitzeko. Laguntzeko prest banago, baina beste leku batetik. Azkenean denbora eskatzen du eta ez dut gehiegi. Eta, gainera, nik uste dut hobe dela jendea berritzen joatea, esperientzia duen jendea egotea baina jende berria ere bai. Kanpotik gauzak oso erraz ikusten dira, baina gero sartzen zarenean ohartzen zara badirela legeak, arauak, badela denbora, eta ezin dela egin zuri iruditzen zaizun moduan. Eta alde horretatik ongi legoke jendea hortik pasatzea.



▲ Ezkerretik eskuinera Aitor, June eta Idoia. Berueteko banatzaileak.



Esan Erran! Itzuli da

Radixu Irratiko programa informatiko berriarekin hasi ginen berriro emititzen, eta lehengo arazoak konponduta, programazio berria martxan da orain. EgunEro irratsaioa ere itzuli da: zuzenean goizeko 10etatik 11k arte; eta, zuzenean entzun ezin dutenendako, berriro, 13:30ean eta 20:30ean. Piztu irratia, sintonizatu 107.9! Gainera, amezti.eus-en zuzeneko edozein lekutatik entzun daiteke; eta EgunEro saioak igoko ditugu, noiznahi berriro entzun nahi dituenarendako.

Badira aste batzuk Esan Erran berriro martxan dagoela. Azken hilabeteetan Arrosa sareko programa informatikoa instalatzen ibili gara, Ondarruko Radixu Irratiko Aritz Oleak diseinatutakoa. Bertan hainbat irratitako zuzenekoak programatu, musika zerrendak egin, eta gainontzeko irratietako irratsaioen grabazioak hartu ditugu. Horrela, beheko taulan duzun programazioa osatu dugu.

Gainera, martxoaren 4tik aurrera EgunEro gure irratsaioa itzuli da. Lantzik egindako saio bereziak eman zion hasiera programazio berriari, ihoteen egun handian. Eskerrik asko parte hartu zenuten

guztiei eta uhinen beste aldean egon zinetenei.

• EGUNERO, EGUNERO

Esan Erraneko irratsaioa, EgunEro, itzuli da. Goizeko 10etan izanen da zuzeneko, astelehenetik ostiralera. Gero, 13:30ean eta 20:30ean errepikatuko da, goizean entzun ezin izan duenak entzuteko aukera izan dezan. Eskualdeko eta kanpoko berriak, musika, erreportajeak eta elkarrizketak jasoko ditu.

EgunEro itzuli da, baina itxura eta soinu berria ekarri du. Esatari berriren bat ere bai: Lur Gil

Rey eta Itziar Perez Argomaniz izanen dira mikrofonoaren eta mahaiaren beste aldean. Baina Esan Erran eskualdeko irratia da, eta herritar guztiena izan nahi du. Beraz, kolaboratzeko gogorik duenak pulunpe@gmail.com-era idazten ahal du. Proposamenak eta ekarpenak egiteko ere bai.

• KOLABORATZAILEAK, ONGI ETORRI

Erran bezala, bizilagunen irratia izatea nahi dugu, guztion artean egina. Norberaren intereseko gaiak lantzeko proposamena egiteaz gain, herritarrek parte



Irratia ahozketasuna eta hainbat gaitasun garatzeko tresna egokia delakoan, eskolarekin geneukan elkarlana berreskuratzeko lanean ari gara. ▲



Mikrofono berriak, irrati maletarako kableak, kaskoak eta behar ditugun gailuak erosi ditugu ▼

hartzea gustatuko litzaiguke, baita mikrofono aurrean ere. Horretarako hainbat modu daude.

Alde batetik, gairen baten ezagutza baduzu, kolaborazioak eskaintzen ahal dituzu. Esate baterako, natura, zinema, literatura, animaliak, edo beste edozer gustukoa baduzu, irratan horri buruz hitz egiten ahal duzu. Edo eragile, talde, kolektibo batean bazaude, bertan egiten duzuna kontatzeko tarte bat izan dezakezu.

Bestalde, gure musika tarteetarako, zuen zerrendak osatzen ahal dituzue. Norberak egindako zerrenda bat edo taldean bildutako kanta multzoak bidaltzen ahal dizkiguzue.

Gainera, irratia ahozkotasuna eta hainbat gaitasun garatzeko tresna egokia dela uste dugu. Horregatik, eskolarekin geneukan elkarlana berreskuratzeko lanean ari gara.

• TEKNIKA, LAGUN

Gure itzulera egoera egokienetan izateko eta kalitate onean etxe guztietara zabaltzeko neurriak hartu ditugu.

Arazo ugari izan genuen zerbitzariarekin, eta hura aldatzea erabaki genuen. Aipatu bezala,



Ondarruko Radixu Irratiarekin jarri ginen harremanetan, hango Aritz Oleak programa informatiko berria diseinatzeko ari zela jakin baikenuen. Proba eta eguneratze lan ugariaren ondoren, uda pasata, gure ordenagailuetan programa hori konfiguratu eta probatzen hasi ginen. Ongi zebilela ikusi ondoren, haren bitartez emititzen hasi ginen duela aste batzuk.

Orain, amezti.eus martxan jarri genuenetik nonahi entzun daiteke Esan Erran; EgunEro saioen podcast-ak eta elkarrizketak bertan zintzilikatuko ditugu, noiznahi berriro entzun nahi

dituenarendako. ‘Hedabideak’ botoia sakatuz eta, bertan, ‘Esan Erran Irratia’ klikatuz aurkituko dituzue aukera horiek guztiak (<https://amezti.eus/irratia/>). Eskuinean, ‘Saioak’ atalean ‘egunero’ sakatuz, podcast-ak aurkitzen ahal dituzue: <https://amezti.eus/irratia/egunero>.

Gainera, inbertsio txiki bat egin dugu mikrofono berriak, irrati maletarako kableak, kaskoak eta behar ditugun gailuak erosteko eta hobetzeko. Zuen etxeetan nabaritzea espero dugu!

Piztu 107.9a!



amezti

IRRATIA

SARRERA

ZUZENEXOA

SAIOAK

PROGRAMAZIOA



▶ 0.00 / 0.00





Itxura berria du amezti.eus-ek

Bi berrikuntza garrantzitsurekin hasi dugu martxoa. Alde batetik, Esan Erran irratia martxan jarri dugu, eta bestetik, amezti.eus webguneak itxura berria dakar.

Martxoaren 4ean Lanzko inauterietako irratsaio bereziarekin etorri zaigu Esan Erran irratia, eta aurrerantzean entzungai izanen dugu 107.9 FM-n. Baina ez bertan bakarrik, amezti.eus webgunean ere entzuteko aukera izanen baitugu.

Hori da webguneak dakarren

berrikuntzetako bat. Eskualdeko hiru komunikabideak uztartzeko plataforma izanen da honenbestez; bertan Pulunpe aldizkaria irakurri eta Esan Erran irratia entzuteko aukera baitugu jada.

Eta ez hori bakarrik, irratian egindako elkarrizketak, irratsaioak eta abar noiznahi entzutea posible baita.

Baina irratiaz gain beste berrikuntza batzuk ere badakartza webgunearen itxura berriak. Azal moderno eta ikusgarriagoa dauka, eta bilaketarako

menu osatuagoa. Agenda, eguraldia, bideoak... bezalako tarte bereziak ere izanen ditu.

Codesyntaxek garatutako programa, eta Tokikom, euskarazko toki komunikabideen plataformari esker daukagu webgune berri hau, eta Euskal Herriko gainontzeko toki komunikabideekin batera, kalitate salto handia eman dugu.

Gogoratu eskualdeko aktualitate guztia, egunez egun eta euskaraz daukazuela **amezti.eus** webgunean.





Coworking gunea hartuko duten bulegoen lanak bukatu dituzte

Ultzamako Udalak pasa den urteko urrian onartu zuen lan kooperatiboa ahalbidetzeko gune hau arautzen duen ordenantza. Orain, udaletxeko bigarren solairua zaharberritzeko lanak bukatu dituzte, eta bertan egokitu dute gunea. Coworkinga, ogibide ezberdinetako langileek partekatzen dituzten bulegoei deitzen zaie. Batez ere autonomoendako pentsatuta dago, Internet, argindarra eta materiala partekatzean, hainbat gastu aurrezteko.

Argazkietan ikusten ahal duzuen bezala berri-berria, oso argitsua eta sekulako bistak ditu. Guztira, 98m² ditu; bulego handia, beste bi gela txikiago: bilera gelak edo gune zabalago bat behar dutenendako; eta 4,5m²-ko komuna.

Oraindik falta diren hainbat mahai izanen ditu, eta inpresora bat partekatu ahalko dute bertan lan egiten dutenek. Kristalezko ate batek banatzen duen gelan kanila jarri dute, eta hozkailu bat ere izanen dute.

Material guztia martxoaren erdialdean jarrita izatea aurreikusten da, eta, apirilean abian izatea. Hilean 50 eurokoa da alokairua, argia eta garbiketa barne.



▲ Bulegoak sekulako bistak ditu



▲ Hamaiketarako gela: kanila bat du eta hozkailu bat ipiniko dute



▲ Bulego handia



Ihote garaia

Eskualde osoan inauteri egunak ditugu otsaila amaiera eta martxo hasierako hauek. Lanzkoak dira ospetsuenak, baina herriz herri mozorroa jantzita ospakizun ugari izan ditugu.

Basaburuan, Itsason eta Igoan izan ondoren, Berueteko ihoteen txanda iritsi zen. Ostatua itxita izan arren jai giro ederrean ospatu zituzten otsaila amaierako egunetan. Hemen dituzue argazki batzuk.

Atezko inauteriak ere ospatu zituzten otsaila amaieran. Beuntzako ostatuan elkartuta, herriz herri joan ziren mozorrotuta. Aroztegin geldialdia egin eta aurpegiak margotu ostean bazkaltzeko tartean hartu zuten. Bazkalostean errondan jarraitu zuten Atezko herrietan barna, eta Eritzen afaldu zuten gero, musikaz eta dantzaz giroturik.

Ultzaman ere ospatu zituzten inauteriak, Iraizotzen eta Urritzolan besteak beste.

Urritzolan, Otsailaren 16an ospatu zituzten. Beti bezala ohikoa den baba txerri buztanarekin, ardi txuleta, tirritarra eta herriko druida den Genarok prestatutako "digestol"-ez osatutako gosari-bazkariarekin hasi ziren.

Edu akordeolariak girotutako bazkalondoa eta gero, arratsalde guztian etxex etxe ibili ziren giro eder eta jendetsuan puxke biltzen. Gauean elkartean berriz ere afaria egin zen jasotako txerri puxke guztiekin eta ondoren "Anitaren bilobak" alaitutako gaupasa goizalderaino.



Berute



Atez



Urritzola

Eskualdeko lau bikote Euskal Herriko Mus Txapelketako finalean

Nafarroako azken kanporaketa jokatu zen Iruñean larunbatean. Bertan sailkatu zirenekin, baditugu Lizarran finala jokatuko duten 32 bikoteen izenak. Horietatik lau gure eskualdekoak dira.

Iruñeako Bullicio peñan eta Arrano elkartean jokatutako kanporaketan munduko txapeldunak diren Ultzamako Timoteo Etxeberria eta Jaione Otxandorena sailkatu ziren finalerako. Horiekin batera Ultzamako Imanol Iragi eta Iñaki Aristegi. Bi bikote hauek izan dira sailkatutako azkenak.

Aurretik Gartzaronen sailkatu ziren Joseba Satrustegi eta Javier Latasa; eta Jauntsasko Apeztegierrin Sebe Eugi eta Mertxe Larraioz. Horrela, eskualdetik lau bikote egongo dira Lizarran izango den finalean, martxoaren 16an.


Guztira 160 bikote parte hartu dute txapelketan Nafarroako kanporaketetan eta horietatik 32 jokatu dute finalean.



Eskualdeko bikote bat jokoan ▲



▲ Nafarroako txapeldunak





Ekoduktuak N-121-A errepidean?

Belateko tunelak ezbaian dauden honetan, beste elementu bat gehitu du Ekologistak Martxan taldeak, animaliek sortutako istripuena.

Nafarroako Gobernuak 530.000 euroko gastua baimendu du, N-121-A (Iruña - Frantzia, Behobiatik) errepidea 2+1 delako errepide bihurtzeko egin beharreko proiektuen idazketa kontratatzeko. Hau da, galtzada bakarreko azpiegitura izango litzateke, bi zirkulazio noranzko izango litzateke, eta hiru errej;erdiko erreia, hain zuzen ere, noranzko baterako zein besterako erabiliko litzateke txandaka, tarte erregularretan.

Jarduketa hori errepideak dituen ia 63 km-etan egingen da, errepide horren funtzionamendua eta segurtasuna hobetzeko neurri multzo zabal baten esparruan. Izan ere, aztergai dugun errepidea erabilienetako bat da gure foru komunitatean. Horrela, plataforma bera berriztatzeaz gainera, abiadura mugak eta seinalaztapena homogeneizatzeko dira, beste errepide batzuekiko bidegurutzeak aldatuko dira, eta

berrantolatu egingen dira bideetatik, nabeetatik eta industria eta zerbitzu guneetatik dauden sarbideak.

● PROIEKTUAN EZ DA FAUNARENDAKO PASABIDERIK EDO EKODUKTURIK AURREIKUSTEN

Ekologistak martxan taldearen arabera, Sorauren eta Belate arteko zatian, argi ikusten da, gune jakin batzuetan, errepidearen ekialdeko baso guneetatik mendebaldekotara, eta alderantziz, igarotzeko nahia dutela animaliek.

Errepidearen inguruko guneetan izandako bistaratzeek, zirkulazio istripuek eta ehiztarien harrapaketa datuek agerian uzten dute faunarentzako pasabideak edo ekoduktuak behar direla hainbat guneetan.

● ISTRIPU UGARI

Nafarroan, faunarekin lotutako 500 istriputik gora gertatzen dira urtero dagoeneko. Basurdeen, orkatzen eta oreinen populazioak hazten ari dira, eta mendiari hesiak jarri ordez,

atek ireki eta habitatak lotu beharko genituzke. Nafarroan faunarentzako pasabide goratu bakarra dago, Loiti gainekoa, hain zuzen ere. Sakanako autobidean lurpeko 11 pasabide egin dira, Aralar eta Andia - Urbasa mendilerroak lotzen dituztenak

● TRAFIKO DENTSITATE HANDIA

N-121-A errepideak Nafarroaren iparraldean gurutzatzen du, eta eguneko 11.000 ibilgailu inguruko zirkulazio dentsitatea du; horietatik, 2.400 kamioiak dira. Horrek esan nahi du orduko 458 ibilgailu inguru igarotzen direla, 7 edo 8 minutuko, edo ibilgailu bat 8 segundoko, batez beste.

● ESKARIA

Taldeak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, N-121-A errepidearen birmoldaketa baliatuz, sor ditzala faunarentzako pasabideak edo ekoduktuak Sorauren eta Belate artean, bide segurtasuna hobetzeko eta, halaber, Nafarroan gehien erabiltzen den errepideetako bat dugun horren eraginpean dauden habitaten kontserbazioa bermatzeko.



Apirilaren 6an izanen da aurtengo rugby gaupasa

Urteroko zitari eutsiz, aurtengo data publiko egin du BRT-k. Momentuz ez dute beste zehaztasunik eman, aurrerago izanen da hori.

16. gaupasa izanen da aurtengoa, eta Larraintzarko pilotalekuan egingen dute, ohikoa den bezala. Gainera, Menditarra-BRT taldearen 40. urteurrena ospatuko dute, eta beraz, gaupasa berezia izanen da apirilaren 6koa.

Pulunpen aritu ginen Menditarra-BRT rugby taldearen 40. Urteurrenaz, besteak beste, honakoa esan genuen:

“Taldeak bizirauteko ezinbesteko zita izan da Larraintzarko gaupasa. 2004an BRTk 1. maila nazionalera igotzea lortu zuenean, aurrekontu handiagoa eta jokalaria gehiago behar zituen, eta urte hartan lehenbiziko

gaupasa egin zen Larraintzarko pilotalekuan, dirua lortu eta errugbia jendearengana gerturatzeko.”

Denboraldia amaitzeko jardunaldi gutxi geratzen diren honetan, maila mantentzeko borrokan dihardu taldeak. Azken jardunaldietan gora egin du eta helburua gauzatzetik gertu daude nafarrak, baina jaitsiera postuak gertu ditu.

Ugari dira BRTn aritzen diren eskualdeko biztanleak, eta joko zelaian lan egiteaz gain, rugby gaupasan ere egin beharko dute. Joanen gara xehetasunak publikatzen gaupasa gerturatu ahala.



▲ gaupasaren kartela



LARRAINTZARKO BENTA ZENTRO ZIBIKOA

**luntxak
bazkariak
afariak**

...

ENKARGUZ

**deitu:
948 30 92 57**



Garazi Arrula
Berria egunkarian

Boto inutila

2019ko otsailaren 22an

Laster 33 urte beteko dira Espainiako estatuan NATOren inguruko erreferenduma egin zela. Orduan bizi ez ginenok ere ongi ikasia dugu zer-nolako garrantzia izan zuten Euskal Herrian bai kontrako mobilizazioek, bai emaitzak: abstentzioa izan zen nagusi Estatuan, %57arekin, eta baietza, berriz, garaile. Itunari ezezkoa eman zioten Hego Euskal Herriko lau lurraldeek, Kataluniak eta Kanaria uharteek, tokiko agintari eskuindarren (EAJ, UPN eta CIU) eta PSOEren ez-bai dantza neurtuaren gainetik. Dudarik gabe, erreferendum hura gogoan hartzekoa bihurtu zen baita espainolismoarentzat ere, herriei dagozkien aferez galdetzeak ekar litzakeen arriskuez ohartarazi baitzuen. Ez euskararen legearekin, ez litoitzeko urtegiarekin, ez AHTarekin, ez tokiko erakundeen autonomia ereduarekin; herri galdeketa baliogabetzeko (eta epaitzeko) teman segitzen du Espainiak. Aski izan zuen susto bat.

NATOkok ere ibiltzen dira aire armada espainolak duen tiro eremu bakarrean. Bardeak Libre plataformak hainbatetan eskatu du herritarrei hitza eman diezaietela poligonoarekin jarraitu nahi ote duten erabakitzeko. Azaroan, tiro eremua desagitearen alde azaldu zen Nafarroako Parlamentua; orduko hartan, UPN, PP eta PSNk kontra bozkatu zuten, eta orain PSOEren gobernuak erabaki du horrekin jarraitzea. Espainiako Gobernuak poligonoa desagiteko aukera izan zuen abenduaren 31 baino lehen; ez duenez halakorik egin, modu automatikoan berritu du okupazio hitzarmena Bardeako erakundeekin. Horrela, NBEk biosferaren erreserba izendaturiko lur eremu hori militar espainolena izanen da beste hamar urtez. Akordioa sinatu zenean ere, ustezko sozialistak zeuden Madrilgo gobernuan.

Espainiako hauteskundeak aurreratu ditu Pedro Sanchezen gobernuak, beste ez-bai dantza neurtu batean; horrek geldiarazi egin ditu transferentziak Nafarroara aldatzeko hasiak ziren izapideak. Orain, esan, inork oraindik sinisten al du PSOE izanen dela euskal herritarrentzako salbamendu joka?

Hainbat hobekuntza lan Ultzaman

Larraitzarko frontoiaren pareko aparkalekuko argia aldatu dute. Orain arte zeuden farolak txikiagoak ziren, eta, argi gutxi ematen zutenez, Udalaren asmoa lan horiek egitea zen. Larraitzarko Bentan musika eta bestelako ikastaroak jasotzen zituzten umeen gurasoek eta herritarrek kexu ziren, gainera. Azkenean, otsail honetan aldatu dituzte jasotako PIL diru-laguntzen bidez. Led motatako bonbillak jarri dituzte betikoen ordean, hau da, kontsumo baxukoak, eta luzeagoak diren 7 farola berri daude orain.



▲ Frontoi pareko aparkalekuko farolak aldatu dituzte

Bestalde, Lozengo ur horniketa lanak bukatu dituzte. Abenduan hasi ziren lur azpitik doazen ura hornitzeko hodiak aldatzeko obrak, eta lan horiek aprobetxatuz, orain, argindarrak behar duen azpiegitura ere aldatu eta sartuko dute lur azpian.



▲ Frontoi pareko aparkalekuko farolak aldatu dituzte



Ibilgailuen Inspekzio Teknikorako datak

Urtero bezala, nekazal ibilgailuen inspekzio teknikorako postu mugikorra herriz herri ibiliko da bertako ibilgailuak begiratzeko.

Nekazal ibilgailuez gain, ziklomotorrak ere ikuskatuko dituzte bertan. Jauntsaratsen hasiko dira martxoaren 13an eta Olaguen amaitu apirilaren 17an. Ordutegia hauex: 10:00-14:00



▲ IIT mugikorra

Eta hemen duzue egutegia:

Martxoaren 13an: Jauntsarats
Martxoaren 14an: Ihaben
Martxoaren 18an: Orokietan
Martxoaren 20an: Gartzaron
Martxoaren 21ean: Oskotz
Martxoaren 25ean: Imozko Latasa
Martxoaren 26an: Igoa
Martxoaren 27an: Eritze

Apirilaren 1ean: Lizaso
Apirilaren 2an: Alkotz
Apirilaren 3an: Alkotz
Apirilaren 4an: Eltzaburu
Apirilaren 5ean: Gerendiain
Apirilaren 12an: Ziaurritz
Apirilaren 15ean: Lantz
Apirilaren 17an: Olague



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

Etxean eginiko eguneroko menua
Hamaiketakoak - Parking zabala
Pizzak, Hanburgesak.... Oilaskoen eta
paellen eskaerak egiteko aukera
EGUNERO IREKITA



*eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote*

Denetarik eta prezio hoberenean



HIRI BATEKO SUPERMERKATU TXIKI
BAT LANDA INGURUNE BATEAN

Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa
Produktu ekologikoak eta bertakoak

EGUNERO IREKITA
9,00etatik 20,00etara

Gulina-Aroztegi errepidea 12.8km-an - Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Korrikarako

Apirilaren 4an hasiko da 2019ko Korrika. Data gerturatzen ari da, eta korrika egiteko beroketa ariketak egin behar diren bezala, ekitaldi honek ere beroketa behar du, eta horretarako prestatu dute korrika kulturala. Gure herrietatik apirilaren 8an igaroko da euskararen aldeko nazio ekimena, eta martxoaren 16tik apirilaren 5a arte izanen da korrika kulturala eskualdeko hainbat herritan. Ekitaldi horien berri emanen dizuegu hemen:

Martxoaren 16an, larunbata, 20:00etan, Itsasoko elkartean.

• Bertso desafioa

Basaburuan hasiko da korrika kulturala, eta bertsoen bidez izanen da. Joana Ziganda, Sahats Aleman, Endika Legarra, Mintxo Astiz eta Juan Mari Irastortza bertsolariak arituko dira.

Gai jartzaile Gartzarongo Oier eta Beruete Aitor arituko dira.

Bertso saioaren ondotik afaria izanen dugu elkartean bertan.



▲ Ana Ibañez eta Dani Martirena

Martxoaren 17an, igandea, 17:00etan Gartzarongo elkartean.

Dani Martirena eta Ana Ibañez Imoztarren “Cosimoren katiuskak” album ilustratuaren aurkezpena, umeendako marrazki tailerra eta txokolatada.

Etxepare sarietako liburu saritua izan

zen Erasoko Dani Martirena eta Ana Ibañezena. Hala idatzi zuen sariketako epaimahaiak:

«...Cosimoren katiuskak liburu indartsua da bai testuan baita ilustrazioan ere, aberatsak dira bi lengoaiak. Teknikokiausarta, guztiak du zeresana, eta horregatik eskaintzen du irakurketa ugari; arriskatzen duen obra bat da, euskal idazle eta ilustratzaileen maila ondo baino hobeto erakusten duena».

Martxoaren 22an, ostirala, 19:00etan, Larraintzarko zentro zibikoan

• Iñaki Larrayoz “Larra” Larraintzarko musikariaren emanaldia.

Larraintzarko Iñaki Larrayoz musikariak bere bakarkako lehenbiziko proiektua kaleratu du: Larra Bideak. Funtsean, jauzi baten kronika izotzua

biltzen du zazpi abestiko diskoak. Behingoz zerurantz hegaldatzearen eta berriz lurrera erotzearen arteko puntu lauso horretan kokatu du bere musika sortzaileak, esperantzarako zein etsipenerako distantzia berera, eta pop, folk eta blues uztartze intimista baten bidez egiten du.

Martxoak 29, ostirala, 19.30ean, Jauntsarasko Apeztegiberriko erabilera anitzetako aretoan.

• “aBaLnTXA” (Blanca Ines Rubio eta Txari Eleta) musikariekin kantaldia.

Txari Eleta irratigile eta musikari ultzamarrak bakarkako diska aurkeztu zuen duela gutxi, baina bakarka aritzeaz gain Blanca Ines Rubio lagunarekin ere aritzen da kantuan. Oraingoan hala izanen da, biek batera abestuko dute Jauntsaratsen.



▲ Abalantxa

Martxoaren 30ean, larunbata, 19:00etan Etxalekuko Biltokian

● Iñaki Perurena .“Harria. Maitasun istorioa” kontakizuna eta erakustaldia. Iñaki Perurena harriarekin datorkigu oraingoan ere, ez ohiko moduan ordea. Harriarekin izan duen istorioa modu berezian azalduko digu ordu bete inguru iraute duen emankizun poetikoan. Emankizunarekin batera erakustaldia ere egingo du. Berak dioen moduan “harria urteetako bidelaguna izanda bizi oso bat daramat harriarekin eta berarekin jarraitu nahi dut”. “Ezingo nuke sufritu nire harri gainean hautsa ikustea eta era berean hautsak harrotu nahi nituzke, arnas berritzeak bizia ematen dit eta ingurukoek ere neurri batean hori bizitzea nahiko nuke”. Harria, metafora bihurtzen du Iñakik emanaldian, adibide eta hausnarketa.



▲ Iñaki Perurena

▼ Laburbira



Martxoak 31, igandea, 18:00etan Erason zaparen etxolan

Apirilaren 3an, asteazkena, 19:00etan, Larraitzarko zentro zibikoan

● “LABURBIRA 2019” euskarazko film laburren proiektzioa

Aurtengo Laburbirako film laburrak ikusteko aukera izanen dugu, eta horietako baten zuzendaria izanen dugu gurekin, Arantza Ibarra. Bere film laburren inguruan arituko da. Hamaseigarren edizioa 9 film laburrekin dator, guztiak 2016 eta 2018a bitartean egindakoak: maitasun istorioak, tentsio bizikoak, bi animaziozko lan, iraganeko kontakizunen bat, Behe Nafarroko istorio bat, majia, intriga eta umorea dira, besteak beste, aurtengoek dakartena.

Sortzaile gazteen lanak dira gehienak eta esperientzia luzeko zuzendarienak beste batzuk. Bederatzitik zazpi emakumeek zuzendutakoak. Denak uztartuta, ordubeteko proiektzioa osatu dugu; kalitatezkoa eta dibertigarria, euskarazko film laburren zaleei merezi duten gozatua emateko.

Apirilaren 5ean, ostirala, Aizarotzen.

● Zirko ikuskizuna, taldekako KORRIKA GINKANA eta txokolatada.

Taldeak osatu eta eman ezazue izena! Talde irabazleak oso sari berezia izanen du!

Apirilaren 5ean, ostirala, 19:00etan, Larraitzarreko zentro zibikoan

● “Txillardegiren klika” dokumentalaren proiektzioa, eta luntx girotua.

14. Korrika hark Ni ere bai leloa zabaldu zuenak, euskara ikasteko urratsa egindako jendea omendunahi izan zuten. Oraingoan, KORRIKA urrunago doa, Klika leloaz eskatu nahi baitu euskara erabiltzeko, euskaraz ahalduntzeko, euskararekin inplikatzeko, eta, noski, ez dakienak euskara ikasteko. Horregatik guztiagatik omenduko du Txillardegi: euskaldun berri zahar hura (berak zioen bezala) erabakigarria izan da euskararen historiako azkeneko mende erdian.



▲ Txillardegiri omenaldia egingen dio aurtengo korrikak







Iker Ozkoidi,

“nire bizitza musher izatera moldatu behar izan dut”

Musherra da Iker Ozkoidi Garcia. Askorendako ezezaguna izanen dira “musher” edo “mushing” hitzak, izan ere neguko kirola da “mushinga”, Europa iparraldekoa bereziki, zakurrek tiratutako lera lasterketa da.

Eta gurean oso kirol ezaguna izan ez arren, Latasan bizi den Iker Ozkoidi izan da munduko txapelkun (6 zakurretako kategorian). Berarekin mintzatu gara:

Etiket urrun zaude egunotan, Norwegian.

Bai, denboraldiko azken lasterketa prestatzen ari naiz, “Norwaytrail” lasterketa.

Lasterketa horren aurretik bi garaipen garrantzitsu izan dituzu, Munduko Txapelketa eta Pyreneerace. Inoizko denboraldirik hoberena?

Bai, Bessancen (Saboia, frantziar alpeak) munduko txapelketa irabazi nuen, eta Pirinioetako Pyreneerace. Oso talde ona daukat aurten, eta beste urteetan baino hobe entrenatzeko aukera izan dut.

Arazoak tarteko ez zinen guztiz ongi abiatu munduko txapelketan ezta?

Munduko Txapelketa izan baino astebete lehenago Le Grand Odyssee lasterketan parte hartu nuen, distantzia erdiko Europako lasterketarik gogorrean. Zakurrek oso nekatuta eta kontrakturaren batekin amaitu zuten, eta munduko txapelketarako

nuen asmoa aldatu behar izan zuen. 12 zakurretako kategoriatik 6kora aldatu nintzen.

Kategoria honek ez ninduen gehiegi motibatzen, 12 zakurrekin aritzera ohituta bainago, baina pozik amaitu nuen, 6 zakurrekin ere 12 zakurretako lehiakideei irabaztea lortu bainuen.

Eta nola bizi izan zenuen lasterketa?

Oso txapelketa gogorra izan zen, lehenengo eta azken egunetan gogoz egin

zuen elurra, eta hala zakurrek nola nik lan gehiago izan genuen. Baina txanponaren beste aldean, Bessans ingurua eta ibilbidea ikaragarri politak ziren.

Nolakoa izan da txapelketa honetarako prestaketa?

Ez nuen munduko txapelketarako entrenatu, Gran Odyssee lasterketarako baizik. Desnibel handiak dituen lasterketa da hau, munduko txapelketak baino gehiago, eta beraz, fisikoki ongi iritsi ginen.



▲ Aurtengo munduko txapelketako irudi bat

iker Ozkoidi, bere zakurretako batekin



Urtero bezala, urrian etxetik gertu entrenatzen hasi nintzen, gero Bardeetan aritu nintzen abendura arte, eta orduan Norvegiara joan nintzen elur gainean entrenatzera.

Latasan bizi zara, nola da musher bat elurrik gabeko leku batean bizitzea?

Egia esan, nire bizitza musher izatera moldatu behar izan dut, kirola baino gehiago bizimodu bat baita. Den dena zakurrei lotuta izan behar da. Herritik aparte bizi naiz zakurrek bizilagunak molestatu ez ditzaten, udan lan eta lan aritzen naiz, neguan denbora gehiago izateko eta entrenatu ahal izateko, eta nire oporrak zakurrekin dira beti.

“
momentu txarrenak zakurren bat lesionatzen denean izaten da
”

Eta entrenatzeko nola moldatzen zara?

Hori da agian konturik zailena. Izan ere, urrira arte ez du goizetan hotzik egiten, eta etxetik gertu ez dut entrenatzeko pista egokirik, horregatik lekualdatu behar izaten naiz. Abenduan Norvegiara joaten naiz elur gainean entrenatzera, eta urtarrilean txapelketak hasten dira.

Zakurrak kirol honen parte izanik, arreta handia eskaini beharko zaie, ezta?

Hainbeste zakurrekin bizitzeak etxean beraieendako azpiegitura izatea eskatzen du, eta ardura eta lan handia, noski. Beste kirol batzuetan denboraldia amaitzean ardura eta buruhauste guztiak amaitzen dira, honetan berriz, urte osoko lana izaten da. Zakurrek egunero jan eta edaten dute, eta egunero beraiekin egon beharra dut.

Nola hasi zinen mushing munduan murgiltzen?

11 urte nituela hasi nintzen aitarekin.

Malamute arrazako zakur bat oparitu ziguten, eta beste batekin gurutzatu ondoren, zakurkumeak izan zituen. Momentu hartan musherrik ez zegoen Euskal Herrian, eta telebista zein aldizkarietan ikusitakoa zen mushingaz genekien bakarra. Aitak zurezko lerak eta arnesak egiten zituen.

Denbora gutxira Pirena lasterketa hasi zen Pirinioetan, eta bertan hasi ginen kanpoko musherregandik ikasten, Pirinioetara etortzen zirenak urte asko emanak zituztelako kirol honetan.

Munduko onenen artean zaude orain, nola iritsi zara horraino?

Maila honetara iristeko gauza asko sakrifikatu behar izan ditut, bizimodu honek dedikazio handia eskatzen baitu, animaliekin lan egiten duzun heinean. Eta askotan familiarekin eta lagunekin egoteko tarte gutxi behar izan dut.

Zein alde on eta zein txar ditu kirol honek?

Nire ustez, mushingak eman didan gauzarik onena daukadan bizimodua da. Baina alde txarra ere badu, oso kirol garestia da, eta ez dugu kasik federazioen laguntzarik. Babesleen laguntza da daukagun bakarra, eta ez da erraza hori lortzen. Nire kasuan, “Breedna” babesleari eskertua nago guztiz, nire zakurrei jana ematen baitiete.

Zure kirol ibilbideko zein momentu dira memorian hobekien gordetzen dituzunak?

Momenturik onenetako bat Pirena irabazi nuenekoa da. Eta momentu txarrenak zakurren bat lesionatzen denean izaten da.



Rita Elizondo

Rita, Rita, ironia fina. Gaskueko *Lopeneko* etxeoandrea.

Aspaldixkoan egin genion Rita Elizondo Aragoni elkarrizketa hau, baina hau dela eta bertzea dela, atzeratuz joan gara bere agertzea, baina ez merezi ez zuelakoz. Emakume honen ironia eta umorea ez baita zokoan gordetzekoa. Ez da agortzen gainera. Hasi eta buka, horrela amaitu genuen elkarrizketa, umorerik hoberenean! Elkarrizketa luzea, nahiz kontu aunitz bazterrean utzi. Eta egindakoari ere aunitz kendu behar izan diogu, Rita. Hurrengoan xurituko ditugu tinteroan gelditutakoak!

• Zu sortzez, Latasakoa, zein etxetako zara?

Ni, Latasako **Apezenekoa**, aita, Jose Elizondo Erbiti, **Apezenekoa** zen eta ama, Mikaela Aragon Goldaratz, berri, Ziarrizko **Leuntzenekoa**.

• Nolakoa zen zuen ama?

Langilea. Beharrik, Latasara isatsaren jabe etorri zen, eta ez “hemen naiz, etorri naizelakoz”.

• Ja, ja! Eta zuen aita nolakoa zen?

Zerbait errateagatik, ostatzalea! Asteburu joaten zen ostatura.

Egia errateko, sakristaua zen: meza kantatu, arrosarioa eman, balio zuen, baina igandetan, ilundu ezkeror, ostatura, musean aritzea.

Feria zalea ere bazen; badakizu, orduan gizon handi horiek, denak, asteartero Irurtzuna feriara!

• Negozioak egitera?

Bah, negoziak!!! Lehenbiziko gosaltzera. Ez zuten bat bakarra ere galtzen! Negoziak!?

• Gosaltzera Irurtzuna. Baba jatez aspertua egonen zen eta.

Bai, aldatzeko! Zuek gizonok, oso kapritxosoak baitzarete! Han umarria janen zuen. Guk bagenuen artaldea, baina axuriak saltzeko, etxean deus ez.

• Axuririk ez al zenuten hiltzen etxean?

Hil bai, baina saltzeko! Saltzeko, saltzeko! Denak saltzeko. Iruñera eramaten genituen, plazara.

• Badakizu oso erreklamatzalea zaudela? Oso feminista.

Bai, ene burua defentatu behar dut, bertzela euliak ere goitik behera kaka eginen didate.

• Etxeari atxiki bat bazenuten, Labategia erraten zeniotena. Hor bazenuten maistarra?

Ez, sukaldeari atxikia zegoen eta traste zaharrak gordetzeko genuen. Sukaldea ere oso handia zen, hor, erdian izaten baitute sua, horietakoa! Sutokian bi aldetatik burdinazko pieza figura eder bana zutenak. Lastima! Traperok eramane zituen!!!

• Eta etxean zer eltzeki eta jaki erabiltzen zenuten bazkaltzeko eta afaltzeko?

Etxean? Baratzekoa! Seiehun edo zazpiehun azajartzen genuen baratzean.

• Seiehun!!!

Seiehun bai. Landatu eta gero erregatu. Eta jateko, banabarrekin nahasiak. Banabar gorriak, arto artean ereiten genituenak! Arto artean aunitz ematen du banabarrak, baratzean bertzerik gabe jartzen direnean baino gehiago.

Gero esnea, aunitz. Artaldea bagenuen eta. Eta gazta.

• Eta jakia?

Jakia pixkaren bat, batzuetan, edo batere ez. Urdai pixka bat frijitu eta urina ogiarekin busti eta pozik!

Eta batzuetan amak:



Rita Elizondo. ▲



-utzi urina, behar dut eta eltzekiari emateko!

Guk apetitu ederra, eta gehiago eta gehiago nahi. Han haragirik ez zen ikusi, ez dakizu kolesterola duela?

• **Kolesterolaren beldurrik ez.**

Ez, ez, orduan horrelako konturik ez zen.

• **Etxearen azpitik pasatzen zaizue erreka koxkor bat, erauntsiak eta izaten zirenean soinu ederra aterako zuen.**

Horixe baietz! Zenbaitzuetan ur aunitz ekartzen zuen eta.

• **Urik ez al zen sartzen zuen etxean horrelakoetan?**

Ez, ez, etxe azpitik pasatzen zen eta sekula ez zen urik sartu izan. Baina azpiko aldeko etxean, **Errekaldean**, bai. Goitiko atetik sartu eta behitikotik atera, ugaldarako bidean. Badakizu ni **Errekaldean** sortu nintzela?

• **Zer diozu? Zu Errekaldean sortu zinela? Ez diguzu erran ba, Apezenekoa zarela?**

Senide batzuk bai, baina ez denak. Ni **Errekaldean** sortutakoa naiz.

Errekaldekoek ez, gurekin ez zuten ongi jokatu. Agindu bai, baina gero bota gintuzten eta gure gurasoak **Apezeneko** jabeengana jo zuten. **Apezenea** amerikano batena zen, Jose Gerendiainena. Eta honek utzi

zigun etxea, errentan eman zigun.

• **Baina zuek etxearen jabe egin zineten noizbait.**

Bai, geroxeago amerikano horrek saltzera atera zuen etxea eta gurasoak, nahiz dirurik izan ez, erosi behar izan zuten, bertzela kanpora joan beharra... Eta epeka-epeka ordaindu ahal izan zuten.

• **Salerosketa hori zein urtetan egin zen?**

Ni 1928. urtean jaiotakoa naiz, eta Rosario, hurrena, 1930ean, Apezenean jaiotakoa da. 1934. urtean edo izanen zen salerosketa.

• **Konta iezadazu amerikano hortaz zerbait.**

Zer izan zen gizon hortaz? Ba, gizona engainatu zutela. Zuen dirua eta guk emandakoa banku batean zuen eta bankuz aldatu behar zuela eta, timazale batzuk, dirua beharrean burdinaz betetako paketa eman zioten. Txakur txiki bat gabe gelditu zen. Eta ilobak etxetik bota zuen eta *Hermanitas de los Pobres* edo *Pobreen ahizpetan* aterpetu behar izan zuen.

• **Eta zuk ezagutu zenuen?**

Jakina, edukazio handiko gizona, oso gizon ona. Eta **Errekaldean** bizitu zen bere ilobekin, diruak galdu eta bota zuten artio. Argentinan-eta ibilitakoa zen.

Hiztegia

Isatsa: Erratza= Eskoba

Umarria: Axurri erreka

Atxikia: Itsatsia

Eltzekia: Zukua= Eltzean prestatutako janaria

Jaikia: Haragia edo arraina

Banabarra: Babarruna

Aterpetu: Refugiarse

Xueldoa: Bi zortziko eta erdi

Erteko: Arteko. Ogi artean jartzeko

Zihatu: Urina edo, gogortu

Aldikakoa: Tenporadakoa

Umezurtza: Huérfano

Gotiko hitz guzi horiek hemengoak ere badira. Soil-soilik hemen ezezagunak, izatekotan, atxiki, aldikakoa, umezurtza izanen lirake. Beraz, ez baldin badakizkizu, ikastea duzu hoberena.

Pentsa, **erteko** hitz hori lehen aldiz entzun dut, eta Ritari, euskaraz ez dakien bati. Hemengo hitza hau ere. Ritak euskara ez omen zuen ikasi. Hala dio berak, baina ez diot gehiegi sinetsi.



Txurdan



Patxi Oskotz

Eta honetan utziko dugu elkarrizketa hau. Falta dena irakurri nahi duenak, Internetez irakur dezake, amezti.eus helbidean.

Landa eremua eta zaintza, aurtengo greba feministaren zutabeetako bi

Pasa den urteko grebak sortutako bultzada feministari eutsiz, aurtengo grebara deitu dute eragile feministek; eta pausuak aurrera eman dituzte hainbat gaietan. Lehenik eta behin, zenbait orduko paroa izatetik, 24 orduko greba izatera pasa da aurtengo. Gaiak berdintsuak izan dira eta greba arlo berberetan egin da, baina garrantzia eman nahi izan zaio, bereziki, zaintza grebari. Gainera, Nafarroako landa eremuko emakumeak* nabarmendu dira grebaren antolakuntzan eta aldarrikapenetan.

Aurrekoan zenbait sindikatuk 2 eta 4 orduko greba deialdia egin zuten, baina grebaren arrakastak aurtengo 24 orduko grebara deitzea eraman ditu hainbat eragile, haien artean Bilgune Feminista. Izan ere, geldituz, emakumeek* egunero eta egun osoan egiten dituzten lanen garrantzia eta karga erakustea da grebaren helburuetako bat. Askotan, ordainpeko lanaren ondoren, etxean lan egin, eta jardunaldi bikoitza jasanezina pairatu behar izaten dute. Eta horietan guztietan egin dute greba martxoaren 8an.

Aurrekoan bezala lan, ikasle, zaintza eta kontsumo greba izan da, eta, gainera, emakume* pentsionistak gehitu dira grebara. Baina aurtengo zaintzan greba egitearen garrantzia jarri da jo puntuan, emakumeek* egiten duten aipatutako jardunaldi bikoitza salatzeke. Kapitalismo heteropatriarkalari planto! Bizitzak erdigunera!, aukeratutako aurtengo leloa.

Bestalde, grebaren antolakuntza deszentralizatu da. Hainbat koordinazio talde sortu dira, esate baterako auzoetako ordezkariak asanbladetan bildu dira Iruñean, aldarrikapenak Alde Zaharrean bakarriker, auzoguztietan izan zitezkeen. Bestetik, Nafarroako eskualdeetako ordezkariak ere koordinadora bat

sortu dute, herrietako ikuspuntua nabarmentzeko. Garrantzi berezia izan dute landa eremuko emakumeek*, haien artean Ultzamakoek, Imozkoek eta, bereziki, Basaburukoek.

Koordinadora hartatik sortu da landa eremuko emakumeen* irakurketa, Iruñeko manifestazioan zutabea osatu baitzuen landa eremuak eta haien komunikatua irakurri zuten. Baztango emakumeek* hartu zuten irakurketa idazteko ardura, besteen ekarpenen laguntzaz, haien artean, Basaburuko kideenak. “Ez da kasualitatea gaur egun ere emakumeek* gizonezkoek baino gehiagotan alde egitea landa eremutik. Izan ere, oraino kontrol moral, fisiko, soziala eta sexuala sufritzen segitzen dugu. Anitz izan dira landa eremutik ihes egin eta hiriak eskaintzen duen indibidualismoan eta anonimatuan bidea egin eta egiten dutenak. Bide hori zilegia izanagatik, bagara landa eremuan emakume* aske bezala bizitzeko hautua egiten dugunak”, bertan entzun genuen mezuaren zati bat. Ameztu.eus-en osorik irakurtzen ahal duzue.

Oro har, eskualdean izan ziren mobilizazioak goizean, gero arratsaldean Iruñeko manifestaziora abiatzeko. Bi gunen nagusi izan ziren, bata Basaburuan, Ohianzabal eskolan; bestea, Ultzaman, Larraintzarko Bentan. Bertatik batzuek piketeak

antolatu zituzten, eta beste batzuek hausnarketan ibili ziren, besteak beste, gaiak eztabaidatzen eta dokumentalak ikusten.

eranskinarensarrera: Gure eskualdean, gizonezkoekin ere asanblada bat egin zuten greba egunean eskatu nahi zieten azaltzeko. Herriko emakumeek greba egin zezaten ahalbidetzea zen haien eginkizuna. Horretarako, zaintza kolektiboa egiteko gizonezkoen gunea jarri zuten Gizarte Etxean.

Martxoak 15

Larraintzarko Bentan

19:00 **“Pioneras, historia y compromiso de las hermanas Úriz Pi”** Liburu aurkezpena

Martxoak 17

Aizarotz

18:00 **“Ipuin erotikoak”** Ipuin kontaketa euskeraz Ines Bengoarekin

Martxoak 28

Larraintzarko Bentan

19:00 **Antzerkia: Eskolako genero tailerren lanaketaren ikuskizuna**

Erakusketak:

Larraintzarko Bentan

* **“SUMANGALI.** “Ehungintza-industriak explotatzen dituen Indiako nesken drama”

* **“Uriz Pi** ahizpen historia eta konpromezua”

Oharra: alea otsailaren 25ean itxi genuen, greba eguna izan baino lehen. Hurrengo Pulunpen izango dituzue irudi guztiak.



Jarduera zikloa Itsasoneako ganbaran, Idoia Jusue Martiarena: “Hemen jende asko dago gauza ugari eskaintzeko”

Artisautza, sormena, ongizatea eta osasuna bateratzen dituzten jarduera zikloa martxan da Muskizko Itsasoneako ganbaran ekainera arte. Zaharberitutako etxean dauden langelak hutsik ikusita, bertako pisu batean bizi den Idoia Jusue Martiarenak sortu du zikloa. Imozko Udalari proposatu eta haren laguntzarekin pasa den otsailaren 23an hasi zen. Ekainera arte, asteburu guztietan, bost ikastaro izango dira, haurrendako eta helduendako.

· Nola sortu da ekimena?

Duela 3 urte bizi naiz Imotzen. 2 urtez Erason bizi izan naiz eta pasa den ekainean Itsasonera etorri nintzen. Alokairu sozialeko pisua da, eta eskaera egiteko derrigorrez proposamen bat egin behar zen bailaran ekimen bat sortzeko. Ni yoga irakaslea naiz, eta txikiendako ikastaroak egiten ditut; hezkuntza eta sormenarekin zerikusia duten jarduerak egin ditut beti eta honekin loturarik duen proposamen txiki bat egin nuen. Pisura sartu nintzenean hori hor geratu zen, eta hilabete hauetangan barahutsik zegoela ikustean ideia horri buelta batzuk eman dizkiot, hura garatu eta ziklo hau sortu da. Kontzejuari eta udalari aurkeztu nion, eta ongi ikusi zuten, hori zela, hain zuzen, behar zutena esan zidaten.



▲ Idoia Jusue Martiarenak sortu du zikloa. Yoga irakaslea da lurruzunen eta azken urteetan hezkuntza eta sormenarekin zerikusia duen proiektuetan egin du lan.

· Zermotatako ikastaroak izanen dira?

Mota askotakoak, asteburuetan 5 ikastaro inguru egingo ditugu. Atarrabiako jubiloteka eramaten duenarekin hitz egin nuen, eta berak ere 65 urtetik gorako pertsonendako ikastarotxo bat egingen du. Txetxu eta Laiak, esate baterako, sukaldaritza osasuntsua egiteko ikastaroa egingo dute Itsasoneako elkartearen. Baita kremak egiteko eta landareak erabiltzeko beste bat ere, hau ziur aski udaberrira begira. Ikastaroak prestatzen hasi nintzenean esan zidaten Latasan badagoela altzairuak zaharberritzen dituen artisau bat, harekin ere zerbait egingen dugu. Dastaketa moduko bat izanen da, inguruan egiten ari diren gauzen erakustaldi bizkorra, eta interesa sortzen badute, hurrengo hilabeteetan, ikastaro sakonagoak egin litezke.

· Zikloan landa eremuko emakumeendako gune bat ere sortu duzue, zer helburu ditu?

Bost saio izanen dituen landa eremuko emakumeen zikloa da. Askotan elkartzeko gune bat behar zutela entzun dut; ekimen zehatzetarako bildu izan direla, martxoaren 8a antolatzeko adibidez, baina behin hori pasata ez zutela dinamikarekin jarraitzen, eta eskaera horri erantzuna eman nahian bururatu zitzaidan. Haize kooperatibako Garoak dinamizatuko du, baina bere lana prozesu parte-hartzaile bat aurrera eramatea izango da, haien beharrak

“Dastaketa moduko bat izanen da, inguruan egiten ari diren gauzen erakustaldi bizkorra; eta interesa sortzen badute, ikastaro sakonagoak egiten ahal dira”

guztien artean aztertzea eta asetzeko bideak lortzea, hau da, bidelagun moduko bat izanen da.

· Egitaraua ez dago oraindik ekainera arte itxita, ezta? Norbaitek deitu dezake, ikastaro bat emateko proposatzeko?

Bai, noski. Deitzen edo idazten ahal du eta bere proposamena edo eskaintza bidali eta ikusiko genuke nola egin. Ekainera arte irauten du zikloa, badaude asteburuak. Gero, udan, balorazioa egin nahiko nuke, nola joan den aztertzea: zertan egon den interesa, zer behar den horrelako zerbait hobeto egiteko; hurrengo baterako kontuan izateko.

Izena emateko: **622 208 410 zenbakian** telefonoz edo **whatsappez**, edo **emailaz** itsasoneakoganbara@gmail.com helbidean.



Iraineekin segituz (III)

Gizon kaka

Aurrekoan **kakalardo** iraina bitan aipatugenuen. Kakatik datorkio intsektu horri izena. Eta kaka hitzekin sortutako irain asko dago gure hizkuntzan. Eta ez da ba ongarri hori askorik gustatzen zaidana, ez dakit ba, imajinazio gutxi edo topatzen diet batzuei. Edo beharbada, zehatzago, tabernazokoan edo karrikan lagun artean ibiltzeko soilik balio luketenak gehientsuenak. Adinekoekin, errespetuko gizonaekin, emakumeekin zaudenean, horietako asko ez dira erabilgarriak. Eta zenbait egoeretan ibiltzekoak ere ez dira, batzarre, bilkura...

Nolanahi gisa, kaka tarteko dela, zenbait irain bizkor sortu ditu euskarak. Nork ez du ibiltzen, esate baterako **kaka zaharra**? Erabat zabaldua eta ibilia. Gazte eta zaharrek, denek darabilte nahi ez duguna gertatzean, nahi ez duguna entzutean...

Eta **kaka gizona**, edo gure alderdian esaten den bezala, **gizon kaka**. Irain gogorra da norbaitendako esaten denean. Gutxi balio duen gizonendako esaten da, eta erabiltzen dute bai gizonaek eta bai emakumeek. Aipatu gabe ezin utzi, emakumeendako ez dudala inoiz entzun parekidea, hau da, **emakume kaka**.

Eta irain honen harira, esaten ahal dugu badirela irainak gizonen kontra bakarrik erabiltzen direnak, goiti aipatu **gizon kaka** eta beste andana luzea bat: **geldoa, alper gorotza, astapotroa...**, eta beste batzuk emakumeen kontra: **hankazikina, atsomotza, patraka**.

Generoen arabera irainak bezala, haurren kontrakoak ere badira, errieta (errexta) egitekoak edo iraintzekoak. Edo zaharrei!

Irainak hain dira ugariak, hain dira bereziak, hizkuntza baten hainbat toles, hainbat zimur, hainbat zoko agertzen baitituzte! Edo irain handitik ttikira, moldagarriak, partikula bat sartuz, edo zetak eta eseak bustiz... ezin konta ahalako ñabardurak!

Hizkuntza mintzatuaren aberastasuna, komunikazioaren beharra, gauzak zehatz esateko nahia... horiek denak ikusten dira irainetan inon baino hobeki, hain izan da irainen hizkuntza erabilia, landua, imajinatua...!

Bai, irainak erabiltzen jakinen bagenu, esan genezake ahozko hizkuntzaren gramatika ez jakinik ere, mintzoaren tripak ikasi ditugula!

Ikas itzazu irainak eta sakreak, biraoak eta juramentuak, eta hizkuntzaren bide eta bidexketan ibiltzeko entrenamendu ona izanen zenuke. Aurrera egiteko ariketa bikaina!

Hori bai, irainak ibiltzen ere jakin behar da, bestela irainduren batek eguna ozpinduko digu eta. Onez onean edo txantxaz esandakoak ere gaizki hartzen dituzten jende **ozpindua** ere ez baita bazterretan falta.

Dena dela, hizkuntzak dituen hitzak bereak ditu; hau ez esan, bestea ez aipatu... horiei kasu eginez gero, ardo frexkoa urardotuko digute erdara bihurtu artio.



Txurdan


Hiztegia

Gorotza: kaka

Toles: pliege

Sakrea: juramentua (Iparraldean)

Urardotu: desvirtuar



Bizitzan,

kirolean
bezala,

HOBETZEKO GRINA_



Bi emakume nafar

Martxoaren 8rako, hots, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, berriro pres-tatu dugu apalategi morea liburute-gian. Baina aurtengoa berezia izan da, nafar emakume idazleei eskaini baitiegu. Hainbat idazle nafarren li-bruak dauzkagu gure bilduman: bes-teak beste, Lucía Baquedano, Marina Aoiz, Txaro Bengue, Laura Mintegi eta Ana Jaka (gurekin egon zen, hain zuzen ere, pasa den urtean; bere libu-rua *Mujeres y niñas* aurkeztu zuen eta bere lanaz hitz egin zuen. Baita bere beste lan batzuei buruz, adibidez, *Ez zen diruagatik eleberria*). Bailarako emakume idazleak ere hemen daude, jakina: Lourdes Iraizoz, Maite Mutu-berria, Sandra Iraizoz... Baina bereziki bi egile nafar aipatzea gustatuko lit-zaidake:

“**Benetan merezi du bi egile hauen liburuak irakurtzea!**”

Karmele Saint-Martin

Karmele, Carmen edo Carmela, libu-rutegian daukagun liburu bakarrean agertzen den bezala: *Cruel Venecia y otros cuentos* (Carmela Saint-Mar-tin). Saint-Martin abizenari dagokio-nez, seudonimo bat baino ez da, eta bere benetako izena Maria del Car-men Navaz izan zen. María Ana Sanz pedagogoa eta hezitzaile ospetsua-ren alaba zen (amak izena ematen dio Txantreako eskola bati). Karmele Saint-Martin (1894-1989) 50 urte pasa zituela hasi zen idazten, helduendako ipuinak, batez ere. Bilduma batzuk ka-leratu zituen eta horietako batek garai hartako genero honen saririk inpor-tanteena irabazi zuen: Leopoldo Alas saria. Saint-Martinen ipuin gehienek ukitu beltz txiki bat dute (edo ez hain txikia, batzuetan oso makabroak bai-tira) eta pertsonaiak sarritan bitxiak dira, bizitza eta heriotza erakargarrie-kin (bere ipuinen amaierak itxiak eta ustekabekoak ohi dira). Saint-Martin, azken batean, aurrendaria izan zen; eta gaur, ziur aski, genero beltza pil-pilean dagoenean, idazle ezagunagoa eta ospetsuagoa izango litzateke bi-ziko balitz.

Maria Luisa Elio

Nori eta nafar idazle bati dedikatuzion Ga-briel García Márquezek dudarik gabe bere nobelarik ospetsuena den *Cien años de soledad*. Maria Luisa Elio zuen izena. Hau istorio tristea, hala ere, Maria Luisa Elio eta bere familiarena! Iruñean jaioa, bere aita Luis Elio epailea izan zen. Errepublikaren aldekoa, kolpe faxistaren ondoren hiru urte luzez egon zen Luis Elío ezkutua gaur Iruñeko La Meca den eraikinean, bi hormen artean. Gero Iparraldera ihes egitea lortu zuen. Han elkartu zen emaz-tearekin eta alabekin eta hortik gutxira erbesteratu egin ziren Mexikora. Han hazi zen Maria Luisa Elío eta han ezagutu zi-tuen idazle handi batzuk, hala nola, Carlos Fuentes, Octavio Paz, Álvaro Mutis, Alejo Carpentier edo Gabriel García Márquez. García Márquez adiskide ona izan zuen Kolonbiako idazleak kontatu zuenez bere nobelako gogoangarriena idatzi baino le-hen. Elio izan zen, gainera, nobelaren lehe-nengo irakurleetako bat eta berarengana joaten zen Gabo zalantzaz eta beldurraz josia zegoenean. Horregatik guztiagatik agertzen da Elioren izena *Cien años de soledad*eko munduan zehar saldu diren milioika aleetan, nahiz eta Nafarroan ia ezezaguna izan.

Maria Luisa Elio 60ko hamarkadan itzuli zen Iruñera bere semearekin, bidaia motz batean, baina aurkitu zuen hiria eta gizar-tea triste eta grisa iruditu zitzaizkion eta sentitu zuena liburutegian dugun bere liburuan jaso zuen: *Tiempo de llorar*.



Maria del Carmen Navaz Auñamendi ▲



Maria Luisa Elio ▲



Elikagai basatien

Geroz eta zapore gehiago iristen zaizkigu ahora, mundu osoko produktuak baititugu eskura. Dena den, Pulunpe aldikariko zenbait aletan ikusi dugun bezala, arriskua sortzen du horrek, kanpoko espezieek gure hazi eta espezie autoktonoei gaitzak sartzea besteak beste.

Gure arbasoek basa landareak etxekotu zituzten, eta basora bila joan beharrean etxean bertan landatu zituzten. Dena den, basoko elikagai guztiak ez ziren etxekotu, eta gu ere geroz eta etxekotuago gauden honetan, basoko zapore batzuk galdu ditugu. Horien berri emango dugu lerrootan:

Ezkurra da elikagai horietako bat. Gure arbasoek milaka urtez ezkurak jan bazituzten, nola da posible egun guk ezin jan izatea? Zergatik galdu dugu elikagai basatiekiko fedea?

Zapore mikatza du ezkurak, eta horregatik ez zaigu erakargarria egiten. Baina zapore hori kentzea badago. Ezkurra txikituz eta irina moduko testura emanez, uretan irakiten jarrita mikaztasuna galduko du, eta irina horrekin ezkur kafea, ezkur ogia, ezkurarekin egindako gaileta gaziak... egin ditzakegu. Ezkurarekin eta basa landareekin egindako "sorgin zopa" ere izan daiteke ezkurarekin egin dezakegun beste jaki bat.

Bestetik, Mahats beltzak eta basoko fruituak (andere-mahatsak, ahabiak, masustak eta masusta gorriak) dira naturak udazkenean ematen dizkigun beste fruta batzuk. Substantzia antioxidatzaileak dituzte: antozianinak, flabonoideak eta taninoak. Zuntzetan, bitaminetan, mineraletan eta oligoelementuetan ere aberatsak

dira. Efektu antioxidatzailea dute, eta immunologia sistema indartzeko eta katarroei aurre egiteko aproposak dira.

Barrengorri eta perretxikoek sistema immunologikoa eta arnas sistema hobetzen dute. Elikagai horiek kaloria gutxi dauzkate, eta B2 bitaminan aberatsak dira. Bitamina hori antigorputzen eta globulu gorrien produkzioarekin erlazionatuta dago; energia lortzeko eta mukosa babesteko baliagarria da, baita bronkioak babesteko ere.

Sukaldean perretxikoek joko handia ematen dute, eta era askotan presta daitezke: baratxuriekin erarik sinpleena da, baina tortillan, edo barazki, haragi eta arraineekin ere oso onak izaten dira.



▲ Ezkurak



Bakarrik gelditu behar al dugu?

Gure alderdian gizartea zahartzen ari da. Gero eta jende zaharragoa da gure eskualdean.

Jaiotzak urri izaten ditugu eta, jakina, heriotzen numeroak, berriz, gora egin du; ez dago besterik.

Pulunpen agertzen ditugu hilero gertatzen diren heriotza eta jaiotzak Ultzamaldean. (Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzama) 2013ko azaroan hasi ginen heriotzen eta jaiotzen datuen berri ematen. Eta nabarmena izan da beti, jaiotzen eta heriotzen artean izan den desoreka. Heriotzak jaiotzak baino aunitz gehiago.

2017a, inoiz izan den okerrera?

Ez ditugu urte guziak ikusi, baina iaz ohartu ginen jaiotzak behera egin zutela nabarmen, hori zen behintzat gure iduria.

Kezkak bultzatuta, iazkoaren erresumena egin dugu eta hona hilez hil, atera zaiguna:

Urtea: 2017		
HILABETEA	JAIOZAK	HERIOTZAK
Urtarrila	1	6
Otsaila	3	6
Martxoa	4	1
Apirila	1	2
Maiatza	1	3
Ekaina	0	2
Uztaila	6	2
Abuztua	0	3
Iraila	1	4
Urria	2	7
Azaroa	1	5
Abendua	0	3
Batuketa	20	44

Eta zer esan 2018ko datuez? Oraindik okerrago! Hona, hemen dituzue datuak:

Urtea: 2018		
HILABETEA	JAIOZAK	HERIOTZAK
Urtarrila	2	6
Otsaila	0	2
Martxoa	1	2
Apirila	0	4
Maiatza	2	4
Ekaina	2	1
Uztaila	1	5
Abuztua	3	4
Iraila	0	1
Urria	3	2
Azaroa	0	5
Abendua	0	7
Batuketa	14 *	43



▲ Hona hemen, 1920ko fotografia. Gure alderdiko eskola bateko haurrak: 33 mutiko. Ea nork asmatzen duen zein herritakoa den. Eskertuko nioke esanzen balit.

Hauek dirazifrak, ikaratzeko modukoak. Beldurgarriak. Jaio halako bi hiltzen da. 10 urteren buruan, 300 bat lagun gutxiago ginateke martxa honetan. Baina kontua aunitzez okerrago da. Hiltzen direnez gain, beste aunitzek ere

alde egiten baitute gure eskualdetik, lana dela, herritto hauek ez dituztela gustuko ... hainbat arrazoi dela. Eta etorri, berriz, jende gutxi etortzen da. Bakarrik gelditu behar al dugu? Gure haurrak eskolarako adinkiderik ere

ez al dute izan behar? Gutxi direnean, elkarrengana biltzea ere zail bihurtzen da. Soilduak eta bakartuak?

Denok zerbait pentsatu beharko genuke, gizabanakook, kontzejuek, udalek eta Gizarte Zerbitzuek... denok. Bakoitzak dagokion neurrian.

Orain hauteskundeak datoz. Zer proposatuko digute datozen hauteskundeetan aurkeztuko diren hautagaiek? Ea hurrengo Pulunperako zerbait azaltzen diguten!

Eta ez datorrela inor esanez deus egitekorik ez dagoela. Gezurra da eta hori! Arazo bat dagoenean eta denona denean, lehen-lehenik biltzea tokatzen da. Bileretarik zerbait ateratzen da. Turuta jotzeko besterik ez baldin bada ere!

J.A.

* **Oharra:** Pulunpen agertu ditugunak 14 izan dira, baina badakigu beste seiren bat haur Iruñean Erregistratu dituztela, beraz, egiaz hemen jaiotakoak 20 lirateke.

Zorionak Zorionak !



Zorionak Alaitz!!



Zorionak Iker!!



Zorionak Rufintxo!!



Zorionak Mara!!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com

Zorionak Xabier, Naia, Unai, Imanol, Ainara eta Eneko!!

2018ko urtarrila

Gure alderdian, urtarril edo ilbeltzean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA

Aizarotz

Zeru Aldekoa Korres, urtarrilaren 23an jaio zen, Iñaki eta Nahiaren mutikoa.

“

Zorionak gurasoei

”



▲ Zeru Aldekoa Korres, Euri bere ahizparekin

Ezkontzak:

Abenduan ez zen ezkontzarik izan gure alderdian.

Heriotzak:

IMOTZ

Etxaleku

Joaquin Erbiti Arostegi, **Eskolazarreko** nagusia, urtarrilaren 27an hil zen, 88 urtetan.



▲ Joaquin Erbiti Arostegi

ODIETA

Gelbentzu

Felix Arraztoa Apezetxe, **Eskoletxeko** nagusia, urtarrilaren 3an hil zen.



▲ Felix Arraztoa

“

Gure oroimenean izanen zarete

”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGİ PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



